



KONTU KONTARI**BATIXTA BORTHIRI-SALA,
LARRAINTAR BAT
PRUSIAN PRESO**

1979ko abenduan, hogeita hiru urte nituela, Baionako Zabal liburu-denda gogoangarri hartara sartu nintzen, eta han, beste liburu askoren artean, Sü-azia kultur elkarte zuberotarrak fotokopiez egindako liburuxka berde bat topatu nuen. *J.B.Borthiry-Sala larraintarrak huntü koblak* irakur zitekeen Orhi mendi magikoaren eta lauburu baten artean kokaturiko izenburu gisakoan. Liburuxka zabaldu orduko han biltzen zenaz liluraturik gelditu nintzen. Bertsoak ziren, zuberotarrez egindako bertset edo koblak. Osora hamazazpi bertso sorta. Azalean azaltzen zen izena guztiz ezezaguna egin zitzaidan, baina lehen orrialdean, aurkibide gisa azaltzen ziren argibideetan erraten zenez, Larraineko semea zen, laboraria, Lehen Mundu Gerla odoltsu hartan bere herritik erauzia eta alemaniarren aurkako borrokaldietara eramana.



Liburuxkaren azala



*Larrañe herria.
Liburuxka barruan azaltzen den marrazkia.*

Liburuxkan azaltzen denez 1889an Larrañeko Salan sorturik. Gazte denboran familiarekin laborantzan aritua. Berak horrela kontatu zuen *Sorlekbia* izeneko lehen bertso sortan:

1

*Bere sorlekhiari bethi zerbait zor da,
nik eman nabi deiot bizpahirur kobla;
Etxe xuri ttipi bat aldian bi borda,
han irus igaran diüt ene haur denbora.*

2

*San Josef en oibana eta Erroimendi,
Arratako bizkarra, bai eta Bürkhegi,
oro ageri dira ene etxondoti,
udan berde-berdia, negüan aldiz xuriz.*

8

*Nik ez dütiüt berritan, ene haur denboran,
zagollak gibeletik bigatü eskolan;
Ardüraago nintzan ni mendi maxelan,
ardien bazterrian khanta errepikan.*

19

*Negüko arratsetan dügü lana franko,
aitak badü beste bat gük bat egin baiko,
ardi, abere eta behor, asto, mando,
txakürra baizik ez da kabalerik kanpo.*

1915ean, hogeita bost urterekin soldadu eramana. Huraxen momentu hartan nik nuen adin berbera. Hotzikara bat sumatu nuen goitik behehiti hura irakurtzean. Larraintarrak horrela kontatu zuen bere bertsoetan:

Gerlako kanthore 1915ian

1

*Hogei ta zunbait urthe dian gizun bati
güstü zaio kbantatzia zunbait bertset berri;
esplikatü nabi dü't albe gütieki
hebenko bizitzia ez dakianari.*

3

*Urbats oroz batügü alde güzietan,
lagünak ebortzirik adin ederrian;
Zurezko khürütxe bat thunbaren gaiñian,
markatuz bila dela bere zerbüttxian.*

9

*Lanjein izanagatik oi gure bizia,
bertset boien huntzia holaxe haitatü;
Arrenküra haborik gordatzen düütügü
üskaldünek algarri kontsolü zor düügü.*

Azkenean, preso hartu eta Prusiara eramán zuten beste atxilo ainitzekin batera. Hau ere ederki kantatu zuen, sentimendu handiaz, *14-18ko Gerlan presoner* izeneko bertso ederrétan. Hamabost bertset osora.

1

*Eniz Üskal Herrian jaiki egün goizan,
Orbi bortia eztüt gehiago bixtan,
ez eta üskaldünik ene lagünetan,
emur buna düit bardin, Prüsia erditan,
bi bertset huntüko düit nula bizi nizan.*

3

*Nik irus izateko zer othe düit falta,
libertatia baizik eta zunbait gauza;
khanbera bazterrian düit arrabineta,
ogi güitixko bena indartsia beita,
bau ezta xuri, eta gabia da beltza.*

15

*Hitz batez erranen düit azken bertsetian,
batü franko düit eta bizi miserian;
Jesüs, lagüntü naizü khantoren huntzian,
orai ezar nazazü oi libertatian,
abal ditzadan khanta Eüskal Herrian.*

Gerla bukatzean, Batixta Borthiri-Salak askatasuna berreskuratu zuen eta Zuberoara itzuli zen, Orhi aspiko habiara, hain zuzen ere. Eta han laborari gisa jarraitu zuen. Bazirudien bakea berreskuratua zuela betiko, baina patu gaiztoak bigarren gerla handi baten lekuko izatera kondenatu zuen, bere belaunaldiko guztiekin egin zuen bezalaxe, baita berak ere zenbait bertsotan ederki kontatu ere. Bordelen zegoen soldadu bertset hauek ondu zituenean.



Soldadu frantsesak lubakian



Soldaduak armak prestatzen

1940eko Gerla

1

*Himeretzü ehün eta berrogei gerren urthia;
Alemaniako armadak garbaitü dü Frantzia;
Hunki gabe ützi balü gure Eüskal Herria,
nik enian pentsatüko bertset boien huntzia.*

5

*Beste ororen gainetik hau da tristegarria,
bi phartetan ezarririk Eüskal Herri maitia;
Sorlekkilat juaiteko zerratürik bidea,
gaiüz ere ametsetan han dǘt phentsamentia.*

7

*Gaiü-aiñbera, abilua alemanen gaiñeti,
erran ezak Xiberuan hebenko zerbait berri,
kuntsertatzen abal bahiz ene adixkideki,
jakin ere nahi nitek han direnez hobeki.*



Sü-azia-koek liburuxkan aitortzen dutenez, Batixta zenaren arrebak, Maddia Onainti ezkontza-izenekoak, anaiaren bertso hauek guztiak eman zizkien, Atharratzeko ospitalean zelarik. Bertsoak eskuz idatzirik zeudenez, Sü-azia-koek orduko grafiara transkribatu eta 1979ko erdi aldean plazaratu zituzten. Ikus dezakezunez, irakurle, ez zuten lan makalik egin Larrai-

neko soldadu koblakariaren bertsetak salbatzean eta inprimatzean; beraiei esker bai guk eta bai heldu diren belaunaldietakoek ere gerlen gaineko zuzeneko testigantza ukan ahal dugulako. *Xiberoko Jinko honak atxiki dezan beti bereki Larraineko Batixta Borthiri-Sala!*

Joseba Aurkenerena Barandiaran